

STEAM PROIEKTUA

1. Lanaren izena eta deskribapena

Behi-ximaurraren konpostajea.

Mankomunitateari konpostero batzuk eskatu genizkion eta Garraldako abeltzain bati behi-ximaurra eskatu genion. Bestalde, lastoa hartu genuen eta bertako zerrategian zerrautsa lortu genuen. Gero, erosi dugu pH eta temperatura neurgailua eta banatu dugu ximaurra konposteroetan eta gero lasto eta zerrauts kantitate desberdinekin nahasi, hortik aurrera, neurketak egin ditugu aldiro aldiro.

2. Zertarako balio du?


Gure inguruan abeltzaintza da nagusi. Abereak ikuiluetan egoten direnean (neguan) zimaur asko sortzen da. Zimaur hori zelaietara itzuli behar da eta konpost moduan baldin bada hobeto izango da gutxiago kutsatzen duelako. Gure proiektuarekin jakin nahi dugu zein den modurik egokiena behi-ximaurra konpostatzeko.

3. Zein da zure lanaren onuradunak? Nori egiten dio mesede?

- Abeltzainek horrela hondakin bat hobeto tratatzeko aukera izanen dutelako
- Nekazari eta abeltzainei euren alor eta larreendako ongarriak lortzen direlako.
- Ingurugiroa hobetzeko eta atmosfera eta akuiferoak ez kontaminatzeko.

Fase experimentalaren emaitzak eta ondorioak

Lastoarekin neurtutako temperaturak



- Suposatzen da geroz eta hartidura gehiago, temperatura igotzen da. Gero, poliki poliki, zimaurren materia organikoa kontsumitzen doa eta temperatura ere jaisten da. Gure ustez, geroz eta lasto gehiago, temperatura hobeto mantentzen da, hau da, bakterioen aktibitatea gehiago mantentzen da.


Azken egunetan konposteroen temperatura nabarmen igo da egun horietan temperaturak nabarmen igo zirelako.

	2/26	3/2	3/5	3/8	3/15
Lasto +++	T:13° Ph: 7	T11 7	14 7	10 7	9 5,5
Lasto ++	T:11° 7	T12 7	11 7	9 7	7 6
Lasto +	T:11 7	T10 8,5	9 7,5	7 8,5	6 7
Zerrautsa +	T10° 7	T10 8,5	9 8	7 8,5	6 7
Zerrautsa ++	T10 8	T11 8,5	10 7,5	7 8,5	5 6,5
Zerrautsa	T10	T10	10	8	6

+++	7,5	8,5	8,5	8	6,5
Zerrautsa ++++	T11 8,5	T11 8	11 8	9 8,5	8 7,5


	3/22	3/26	4/12		
Lasto +++	T 8 7	T 13 6	T 9 7		
Lasto ++	T 5 7	T 10 7	T 7 7		
Lasto +	T 4 7	T 11 7	T 4 7		
Zerrautsa +	T4 6,5	T 10 6,5	T 5 7		
Zerrautsa ++	T 3 7	T 10 7	T 4 7		
Zerrautsa +++	T 4 7	T 11 8,5	T 5 8		
Zerrautsa ++++	T 6 8	T 13 7,5	T 6 7,5		

Zerrautsaren T°




- Suposatzen da, geroz eta materia organiko gehiago, deskonposizio gehiago eta orduan temperatura ere altua izango zen. Gure grafikoaren hasieran, hori ikusten da. Gero, denborarekin zimaurre gutxiago egonen da eta aktibitatea ere gutxiago, orduan temperatura ere gutxiago.

Lastoaren PH-a



Points scored



- Zerrautzaren pH-a basikoa da, hau da, 7 baino altuagoa. Geroz eta deskonposizio gehiago geroz eta pH-a neutroagoa izatea logikoa da. Grafikoaren eta gure datuen arabera egokiena zerrautza gutxien daukana izango litzateke.

Ateratako ondorioak

1. PHaren balioek ez dute aldaketa oso nabarmenik izan denboran zehar
2. Tenperaturari dagokionez, lehenengo nabarmendu behar da giro tenperaturak eragina daukala
3. Lasto asko dagoen konposteroan gehiago mantendu da, eta horrek adieraziko luke hor aktibitate gehiago egn dela.
4. Zerrautsarekin juxtu alderantziz gertatu da, hau da zerrauts gutxien daukana izan da tenperaturari hobeki eutsi dioena.
5. Beraz, ondoriozta dezakegu lastoa daukaten konposeroek hobeki funtzionatu dutela zerrautsa daukatenak baino.
6. Interesgarria izango litzateke. ateratako ondorio horiek frogatzeko eta ziurtatzeko, lortutako konposta landare ezberdinekin esperimintatzea.

